



1366/2024 EBAZPENA, ekainaren 24koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Atal Sanitarioko Burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den

AURREKARIAK

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari gerentearen apirilaren 24ko 691/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Barrualde-Galdakaoko ESiko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2024ko maiatzaren 16ko EHAA 95 zk. eta 2024ko maiatzaren 23ko BOE 125 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2024ko ekainaren 13an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,


EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Barrualde-Galdakaoko ESiko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio xxx ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Galdakao, 2024ko ekainaren 24a.



Barrualde-Galdakao zuzendari gerentea,
JON GUAJARDO REMACHA



I. ERANSKINA

**BARRUALDE-GALDAKAO KO ESI-KO KIRURGIA ORTOPEDIKOKO ETA
TRAUMATOLOGIAKO ATAL SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA**

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- María Purificación Molina Martos and..

Baztertuak:

- Inork ez